



AGINDUA, 2026KO EKAINAREN 11KOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO
SAILBURUARENA, EUSKADIKO TURISMO-GIDARIEN JARDUERARI BURUZKO DEKRETUA
ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako egiteko hauek esleitzen dizkio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, besteak beste: turismoa.

Aurreproiektua egiteko eta izapidetzeko, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

Haren 12.1 artikulua zehazten duenez, «xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da». Bestalde, lege horren 13.1 artikulua hasiera-agindu horrek bete beharreko baldintzak eta gutxieneko edukia ezartzen ditu.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila da gaiaren arabera eskuduna, lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuan esleitutako eskumenen arabera.

Euskadiko turismo-gidarien jarduera arautzen duen martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua indarrean jartzeak aurrerapen nabarmena ekarri zuen turismo-gidariaren jarduera antolatzeke orduan, gaikuntza profesionaleko sistema bat, titulazio eta prestakuntza baliadunen katalogo bat eta jardun egokia ziurtatzeko betebeharren multzo bat ezarri baitzituen. Esparru horri esker, sektoreari egitura juridiko argia eman zitzaion, jardunean zeuden profesionalen egokitzapena erraztu zuen, eta turismo-gidariaren figura ikusarazten eta aitortzen lagundu zuen.

EAEen turismo-gidariaren jardueran aritzeko zuzeneko gaikuntzaren araubidea indarrean jarri zenetik metatutako esperientziak agerian utzi du muga jakin batzuk dituela EAEko turismo-sektoreak eskatzen dituen kalitate- eta profesionaltasun-estandarrak erabat bermatzeko gaitasunean.

Era berean, gaikuntza galtzeko kasuak zabaldu eta zehaztu dira. Aldaketa horren helburua da administrazio-simplifikazioa zerbitzuaren kalitate-bermearekin orekatzea, erabiltzaileen konfiantza indartuz. Horrekin, eredu sendoago baterantz egiten da aurrera, turismoaren egungo beharrekin eta Euskadiko turismo-politikaren inspirazio-iturri diren bikaintasun- eta jasangarritasun-helburu estrategikoekin koherentea izango den eredu baterantz.

XIII. Legegintzaldiko Gobernu Planaren 104. konpromisoaren bosgarren ekimenak (Euskadi, bikaintasunezko helmuga turistikoa, segurua, jasangarria eta berdintasunarekin konprometitua), besteak beste, sektore turistikoaren profesionalizazioa bultzatzea barne hartzen du, profesionalen etengabeko prestakuntzarekin, haien trebetasunak, kompetenziak eta gaitasunak hobetuz. Proiekturiko dekretua onartzeak garatu egiten du ekimen hori.



Azkenik, Gobernu Kontseiluak, 2026ko otsailaren 17an egindako bilkuran, 2026rako Urteko Araugintza Plana onartzen duen Erabakia onartu zuen, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baitzen urte horretako martxoaren 2an. Plan horren 14.3 apartatuan, Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua aldatzeko dekretu bat egitea jasotzen da.

Aurretik azaldutakoarekin bat etorriz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikuluan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-gidariei buruzko Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea, honako hauetan ezarritakoaren arabera: agindu hau; Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legea; abenduaren 12ko 132/2017 Ebazpenaren bidez onartutako arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak; eta Euskal Autonomia Erkidegoko lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen Erabakia, Gobernu Kontseiluak 2023ko uztailaren 11n egindako bilkuran onartua. Dekretu-proiektua egiteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

1.- ARAUAREN XEDEA ETA HELBURUA

Egiten den arau-proiektuaren xedea da Euskadiko turismo-gidariaren jarduera arautzen duen martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua aldatzea.

Aldaketa horren bidez, jarduera horretan aritzeko eskatzen diren betekizunak indartzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-gidariaren lanbide-jardueran aritzeko gaikuntza-proben sistema bat ezartzen da. Proba horien helburua da egiaztatzea izangaiak badituela lanbidearen berezko eginkizunak behar bezala betetzeko behar diren ezagutzak, gaitasunak eta konpetentziak.

Turismo-gidariaren lanak funtsezko zeregina betetzen du kultura-ondarearen interpretazioan eta turismo-esperientziaren kalitatean eta, testuinguru horretan, ezinbestekoa da bermatzea lanbide-gaikuntzarako sarbidea irizpide objektiboetan, uniformeetan eta guztiz bermatzaileetan oinarritzen dela. Onartutako prestakuntza-profilen aniztasunak, baliotsua bada ere, tresna gehigarriak behar ditu, pertsona gaitu guztiek jarduera behar bezala egiteko behar diren ezagutzak eta trebetasunak dituztela egiaztatzeko. Hori dela eta, egokitzat jotzen da indarrean dagoen arau-esparrua berrikustea eta eguneratzea, eskatzen diren baldintzak betetzen direla modu zorrotzago eta eraginkorragoan egiaztatzeko aukera emango duen gaikuntza-sistema bat txertatuz.

Era berean, gaikuntza galtzeko kasuak zabaldu eta zehazten dira, eta administrazioari egokitasun profesionala edo jarduerari datxezkion betebeharrak betetzea arriskuan jartzen duten egoeretan jardutea ahalbidetzen dioten arazoak gehitzen dira. Eguneratze hori gaikuntza-sistema berriaren beharrezko osagarri gisa hartzen da, eta ziurtatzen da,

ezagutzak eta gaitasunak frogatuz ez ezik, hura ematea justifikatu zuten baldintzek irauten duten neurrian ere mantentzen dela.

Efektuak galtzeko araubidea modu proportzionalen eta bermatzailean egituratzen da, eta honako hauek bereizten ditu: titularraren borondatek eratorritako kasuak, jarduera-aldia igarotzearekin lotutakoak beste lurralde batzuetatik datozen gaikuntzen kasuan, eta arrazoi objektiboak erantzuten dietenak, hala nola zehapen irmoak ezartzea, gerora sortutako inguruabarrak egotea edo lege zuzenaren beste edozein arrazoi.

2.- PROPOSAMENAREN EGOKITASUNA

Turismo-gidariaren lanak funtsezko zeregina betetzen du kultura-ondarearen interpretazioan eta turismo-esperientziaren kalitatean, eta, testuinguru horretan, ezinbestekoa da bermatzea lanbide-gaikuntzarako sarbidea irizpide objektiboetan, uniformeetan eta guztiz bermatzaileetan oinarritzen dela. Indarrean dagoen arau onartutako prestakuntza-profilen aniztasunak, baliotsua izan arren, tresna gehigarriak behar ditu, pertsona gaitu guztiek jarduera behar bezala egiteko behar diren ezagutzak eta trebetasunak dituztela egiaztatzeko. Hori dela eta, egokitzen jotzen da indarrean dagoen arau-esparrua berrikustea eta eguneratzea, eta gaikuntza-sistema bat ezartzea, eskatutako baldintzak betetzen direla modu zorrotzago eta eraginkorragoan egiaztatu ahal izateko.

3. AZTERTUTAKO ERREGULAZIO-ALTERNATIBAK

Aurreko apartatuetan azaldutako inguruabarrak direla eta, dekretu-proiektu hau egitea beharrezkotzat jotzen da, eta ezin da beste aukera arautzailerik planteatu.

4. BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA ETA MATERIALA

4.1. BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA

Dekretu-proiektuaren proposamena erabat bideragarria da juridikoki, Euskal Autonomia Erkidegoak turismoaren arloan dituen eskumen propioen erabilera legitimoaren barruan sartzen baita. Haren edukia bat dator indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin. Ez da identifikatu izapidetzea edo aplikazioa mugatzen duen lege-murrizketarik; izan ere, turismoaren erregulazioa berezko eskumen-eremua da, eta, beraz, guztiz bidezkoa da dekretu-mailako arau bat onartzea, proiektatutako arauaren xedea lortu ahal izateko.

Konstituzioaren ikuspegitik, lege-aurreproiektua guztiz bideragarria da; izan ere, Espainiako Konstituzioaren 148.1.18 artikulua ezartzen du autonomia-erkidegoek beren gain har ditzaketela turismoa sustatzeko eta antolatzeko eskumenak, beren lurralde-eremuan. Manu horrek sektore horretan erregulazio propioa garatzeko ahalmena ematen die autonomia-erkidegoei, eta eskumen-eremu propio bat eratzen du, turismo-jarduera antolatzeko arauak onar ditzaten. Esparru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak legitimoki baliatzen du turismoaren arloko legegintza-ahala, eta ez dago arlo horretako lege autonomiko baten onarpena mugatzen edo baldintzatzen duen estatu-erreserbarik.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.36 artikulua arabera (3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena), Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio bere lurralde-eremuan turismoa sustatu eta antolatzeko eskumen

esklusiboa, eta horrek erabat gaitzen du sektore hori modu integralean arautuko duen lege-mailako arau bat onartzea.

Izapidetzen ari den proiektua Euskal Autonomia Erkidegoak turismoaren arloan duen eskumen esklusiboaren garapena da, Turismoaren 13/2016 Legea, hain zuzen ere, honela definitzen baititu lanbide turistikoak: pertsona fisiko edo juridikoek turismoaren arloko orientazio-, hedapen-, informazio- eta laguntza-zerbitzuak ohikotasunez eta modu ordainduan emate , eta erregelamenduz hala zehazten direnak, turismo-gidarien figura .

Arauk jarduera ekonomiko bat gauzatzeko baldintzetan eragiten duenez, proiektuak, 13/2016 Legeak diseinatutako sistemaren arabera – Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauan oinarrituta –, enpresa-askatasunaren printzipioa errespetatzen du, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes-eskubidearekin bateragarri diren baldintzetan, bai eta kultura-ondareko elementuen babesa ere.

Era berean, adierazitakoa errepikatzea. Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako egiteko hauek esleitzen dizkio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, besteak beste: turismoa. Esparru horretan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuak sail horri esleitzen dizkio turismo-arloko politika publikoak planifikatzeko, antolatzeke, bultzatzeko eta koordinatzeko eginkizunak.

4.2. BIDERAGARRITASUN MATERIALA. ERREGULAZIO ONAREN PRINTZPIOETARA EGOKITZEARI BURUZKO AIPAMEN BEREZIA

Dekretu-proiektua egitea eta izapidetzea materialki bideragarria da, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak haren garapena bere gain hartzeko behar diren antolaketa-baliabideak eta baliabide teknikoak . Turismo-plangintzaz eta -antolamenduaz arduratzen diren unitateek langile espezializatuak eta esperientzia d arau-ekimenak izapidetzen, eta, horri esker, prozesuari behar bezala ekin dakiok. Indarrean dagoen administrazio-egiturak, gainera, barne-koordinazioa eta sektoreko eragileekiko lankidetzaz errazten ditu, lanketa-prozesu zorrotza eta ondo oinarritua ziurtatuz.

Era berean, dekretu-proiektua egitea materialki bideragarria da araudiaren kalitatearen ikuspegitik ere; izan ere, prozesua bat etorriko da Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikuluan jasotako arau-kalitatearen printzipioekin. Ekimenak EAEko turismo-sisteman identifikatutako premia bati erantzuten dio, eta tresna egokiena da lortu nahi diren helburuak lortzeko haren beharra eta eraginkortasuna bermatzen ditu. Proposatutako erregulazioa ezinbestekoa dena mugatuko da, proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritik, eta modu harmonikoan txertatuko da indarrean dagoen ordenamendu juridikoan, segurtasun juridikoa indartuz.

Prestatzeko prozedurak gardentasun- eta partaidetza-mekanismoak izango ditu, eta informazio garrantzitsurako sarbidea eta inplikaturako eragileen esku-hartzea bermatuko ditu. Era berean, testu arauemailea argitasun-, sinpletasun- eta ulergarritasun-irizpideekin

idatziko da. Ekimenak irisgarritasuna, emakumeen eta gizonen berdintasuna (genero-eraginari buruzko txostena barne) eta euskararen eta gaztelaniaren arteko hizkuntza-berdintasuna bermatuko ditu, bi hizkuntza-bertsioak aldi berean eta modu baliokidean eginez. Azkenik, araua jasangarritasunera bideratuko da, garapen ekonomikoaren, gizarte-ongizatearen eta ingurumen-babesaren arteko ikuspegi orekatua integratuz.

5. ORDENAMENDU JURIDIKOAN IZANGO DUEN ERAGINA

Proiektatutako araua onartzeak Euskadiko turismo-gidariaren jarduera arautzen duen martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua partzialki aldatzea ekarriko du.

6.- ERAGINAREN EBALUAZIOAK

6.1. ERAGINAREN EBALUAZIOAK

Dekretu-proiektuarekin batera, dossier bat egingo da, egoki diren eragin-ebaluazioak jasoko dituen, xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen araudiaren arabera. Arauak ekonomia-, gizarte-, administrazio-, aurrekontu- eta ingurumen-arloetan izan ditzakeen ondorioei buruzko azterketak jasoko ditu dossier horrek, bai eta lege berriak aldatzen edo indargabetzen dituen xedapenei dagokienez alde aurretik egindako beste edozein ebaluazio ere. Helburua da oinarri tekniko nahikoa ematea, arau-ekimenaren egokitasuna, beharra eta eraginkortasuna baloratu ahal izateko.

6.2. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO AZTERKETA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, generoaren arabeko eraginari buruzko txosten bat idatziko da, eta bertan jasoko da proposamenak zer eragin izan dezakeen emakumeen eta gizonen egoeran, kolektibo gisa.

Aztertuko da arauak ondorio positiboak edo kontrakoak izan ditzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta haien berdintasuna sustatzeko helburuan, eta, hala badagokio, testua idaztean kontuan hartu diren neurri zuzentzaile egokiak.

Era berean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan 3 f) apartatuan xedatutakoaren arabera, generoaren arabeko eraginari buruzko txosten hori arau-eraginaren azterketaren memoriaren parte izango da. Bertan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin lotuta egindako izapideen eta haien emaitzen azalpen zehatza jasoko da.

Hala ere, aurretiazko azterketa batean, uste da aldatzeko dekretu-proiektuak ez duela eragin positiborik edo kaltegarrik izango emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburuan, titulazio- eta hizkuntza-baldintzak betetzen dituen edozein pertsona gaikuntza lortzeko aukera ematen baitu. Sailak dituen estatistiketan oinarrituta, ez da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun handirik ikusten dekretuak eragiten duen sektorean. Era berean, eta aurrekoarekin bat etorritik, zuzeneko gaikuntza-araubidea azterketa-sistema batekin ordeztzen duen arau-aldaketak ez du genero-inpakturik sortzen; izan ere, sartzeko baldintzak guztiz neutroak dira, eta modu berean aplikatzen zaizkie hautagai guztiei, sexua edo genero-identitatea edozein dela ere.

Prozedura berriak aukera-berdintasuna bermatzen du, lanbide-ezagutzako eta -gaikuntzako irizpide objektiboetan soilik oinarritzen baita, emakumeei edo gizonei modu desberdinean eragin diezaieketen oztopo edo baldintzarik sartu gabe.

Proposatutako arauak generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duenez, emakumeen eta gizonen egoeran duen eragina oso txikia delako Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko Jarraibideen Lehenengo Jarraibidearen 2.a) apartatuan xedatutakoaren arabera, sail izapidegilearen Zerbitzu Zuzendaritzak txosten bat egingo du garrantzirik ez duela behar bezala justifikatzeko aipatutako jarraibideen II. eranskinean aurreikusitako baldintz , eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, era berean, egiaztapen-txostena egin beharko du 10 egun balioduneko epean, bat etorritz martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluekin, zeinak onartzen baitu testu betegina.

7. AURREKONTUETAN IZANGO DUEN ERAGINA

Dagokion memoria ekonomikoa egingo da, etorkizuneko araua aplikatzearen ondoriozko kostua eta arau hori aplikatzeak EAEko Aurrekontu Orokorretan izango duen eragina aztertzeko, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Dekretu-proiektuari dagokionez, uste da hura onartzeak ez diola zuzeneko edo berehalako kosturik eragingo Administrazioari, eta ez duela baliabide gehigarririk eskatuko aurreikusitako jarduketak ezartzeko; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-gidariaren lanbide-jardueran aritzeko gaikuntza-probak egitearen ondoriozko kostuak finantzatzeko, izangaiak aurreikusitako azterketa-tasak ordainduko dituzte.

Era berean, ez da diru-sarrerarik edo aurrezkerik aurreratzen indarrean dagoen aurrekontu-egoerarekin alderatuta.

8.- GAIA ETA PROPOSATUTAKO ARAUDIAREN EDUKIA DIRELA-ETA EGOKITZAT JOTZEN DIREN IZAPIDEAK ETA TXOSTENAK

Aldatzeko dekretu-proiektua agindu honen edukiaren arabera idatziko da, ekainaren 30eko 6/2022 Legean eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 128. artikulutik 133. artikulura bitartean ezarritako prozedurari jarraituz. Plana egiten den bitartean, eskura dauden arau-aukerak aztertuko dira, lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen direnak hautatuta, eta etorkizuneko erregulazioaren kalitatea eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsultetatik eratorritako ekarpenak sartuko dira.

Jarraian, prozeduraren esparruan beharrezkotzat jotzen diren izapide eta txostenen zerrenda azaltzen da.

8.-1.- PRESTATZEA (AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA)

6/2022 Legearen 11. artikuluen arabera, aurretiazko kontsulta publikoa egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, 15 egunez. Kontsulta horretan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen herritarren eta pertsona eta

antolakunde ordezkarien iritzia eskatu dira, araua onartzeko beharrari eta egokitasunari, arauaren xedeari eta konpondu nahi diren arazoei buruz.

Aurretiatzko kontsulta hori 2026ko maiatzaren 5etik 25era bitartean egin da (biak barne), iragarki bat argitaratuta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-aula elektronikoa, 2026ko maiatzaren 4an Irekia plataforman ere , herritarren eta administrazioaren arteko Internet bidezko zuzeneko komunikazio-kanala baita, administrazioa ez den hizkerarekin. Bertan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren legegintza-proiektuak eztabaidatu, baloratu eta herritarren iritziekin osatzen dira.

Kontsultaren emaitza araua egiteko prozeduran sartuko da, kontsultan parte hartu duten pertsonak eta erakundeek emandako iritzien laburpena jasotzen duen txosten bat aurkeztuta.

8.-2.- HASIERA

Aurretiatzko kontsulta publikoa amaitu ondoren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak hasiko du aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura, 6/2022 Legearen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera. Bestalde, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-aulan argitaratuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-aulan argitaratuz gero, automatikoki jakinaraziko zaie Jaurlaritza osatzen duten sail guztiei, ekimenari buruzko oharrak egin ditzaten.

Testua bi hizkuntza ofizialetan idatziko da, euskaraz eta gaztelaniaz,

Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13ko bilkuran onartutako arau-xedapen orokorrak egiteko prozeduraren oinarriko ereduaren arabera, prozeduraren hasiera jakinaraziko zaie prozeduran interesduntzat jotzen diren pertsona eta erakundeei, alde batera utzita ondorengo izapideetan interesdun berriak ager daitezkeen, adibidez, jendaurreko informazioaren izapidean.

8.-3.- ALDEZ AURREKO ONARPENA

Dekretu-proiektua idatzi ondoren, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenari jarraituko zaio, zeinaren bidez xedatzen baita lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen erabakia argitaratzea. Ondoren, testu elebiduna Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren agindu bidez onartuko da, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldez aurreko onarpen-aginduari onartutako testu elebiduna erantsiko zaio, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-aulan argitaratuko da.

Arau-eraginaren azterketaren memoria idatziko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan 3. apartatuan ezarritako edukiarekin.

Lege-aurreproiektua Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Aholkularitza Juridikoaren txosten juridikoaren izapidearen mende jarriko da.

Berriazko memoria ekonomiko bat egingo da, aldez aurreko onarpenaren xede den testuan izandako aldaketak ikusita, hasteko aginduan aurreikusitako kostuen zenbatespenaren balizko zehaztapenak edo desbideratzeak berresteko edo adierazteko. Memoria horretan, gastuak eta diru-sarrerak kuantifikatuko dira, eta Administrazio Publikoaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturriak eta -moduak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk ere jasoko dira.

8.-4.- INSTRUKZIOA

a) Izapideak kontzentratzea

Egintza bakar batean eta aztertuko dira izaeragatik batera daitezkeen eta bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak. Denak batera egingo dira, hilabeteko epe , aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera.

b) Nahitaezko txostenak eta irizpenak

Lege-aurreproiektuan arautzen den gaia dela eta, honako txosten eta izapide hauek egin behar dira:

- Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzekoa (233/2012 Dekretua, azaroaren 6koa, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena).
- Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren txostena. Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko 9/2007 Legearen 4.1 o) artikulua ezartzen du nahitaezko txostena eskatuko dela, proiektuak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eragiten dielako.
- Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari kontsulta egitea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2023 Legearen 10.a) artikulua arabera, zeinak kontsultaren nahitaezkotasuna ezartzen baitu, izapidetzen ari den arau-proiektuak gai horri eragiten dielako.

- Aurreproiektua Euskadiko Turismo Mahaiari helaraztea, jakinaren gainean egon dadin, Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamendu- eta antolaketa-araubideari buruzko apirilaren 29ko 67/2026 Dekretuaren 4.1.b) artikulua betez.
- Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3.5 artikulua arabera, gai horri eragiten dioten proiektuetan irizpen ez-loteslea xedatzen baitu.
- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren txostena, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, rau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoaren 49.1.m eta 50.c artikuluekin lotuta.
- Haurren eta Nerabeen Behatokiari dagokion txostena, Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen 3.4 artikulua arabera.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Enplegurako Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren txostena.
- UNIBASQ. Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia
- Kultura Sailaren txostena, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 3.f) artikulua betetzeko, hari baitagokio «Euskal kultura-ondareari eragiten dioten arau eta planei buruzko aurretiazko nahitaezko txostena egitea».

c) Entzunaldia eta jendaurreko informazioa

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikulua 3. apartatuaren arabera, entzunaldia eta, hala badagokio, informazio publikoa aurreko artikuluan aurreikusitako gainerako izapideekin batera egingo da, epe komun berean, alde aurreko onarpena duen xedapenen testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren iragarki-taula elektronikoa argitaratzen denetik aurrera.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17.1 artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egin behar da. Izapide horrekin, herritarren parte-hartzearen eskakizuna beteko da.

Herritarrei arreta integral eta emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15. artikulua arabera, entitate eta pertsona juridikoen eta prozedura izapidetzeko ardura duen organoaren arteko komunikazioak bitarteko telematikoen bidez baino ez dira egingo. Hala ere, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.1 artikulua arabera, pertsona fisikoek noiznahi aukeratu ahal izango dute bitarteko elektronikoen bidez komunikatzen diren ala ez.

Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egiteko, jendaurrean jarri beharko da, iragarki bat jarritz Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoa.

Entzunaldia eragindako herritarrak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta proiektatutako xedapenaren xedarekin lotura zuzena duten erakunde eta elkarten bidez egingo da (legeak onartutakoak).

6/2022 Legearen 13.1.f artikulua arabera, jarraian, alde aurretik, xedapenak uki ditzakeen subjektu eta erakunde adierazgarrienak zerrendatzen dira:

- APIT EUSKADI.
- GASTEIZ KONTSUMITZAILEEN ELKARTE PROBINTZIALA-E.H.K.B.
- FACUA EUSKADI - EUSKADIKO KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN EKINTZA ELKARTEA.
- EUSKAL KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ELKARTEA (EKA-ACUV).
- SEA- ARABAKO ENPRESAK
- ADEGI – GIPUZKOAKO ENPRESEN ELKARTEA.
- CEBEK – BIZKAIKO ENPRESARIEN KONFEDERAZIOA.
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEA.
- ARABAKO MERKATARITZA-GANBERA OFIZIALA.
- BILBOKO MERKATARITZA-GANBERA OFIZIALA.
- GIPUZKOAKO MERKATARITZA-GANBERA OFIZIALA.

d) Beste administrazio batzuek parte hartzea eta haiei kontsulta egitea: ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 18. artikulua betez, xedapenaren testuaren alde aurreko onarpena argitaratu eta hilabeteko epe komun berean, xedapen orokorrak egiteko prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie zuzenean eragin diezaieketen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei.

Proposatutako araudiak zuzenean eragin diezaiekeenez foru- edo udal-titulartasuneko museoek eta kultura-ekipamenduei, kontsulta egingo zaie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei, bai eta hiru hiriburu-udal-erakundeak – Vitoria-Gasteiz, Bilbo eta Donostia –, eskumen zuzena baitute museoak kudeatzeko eta kultura-intereseko ondasunak babesteko eta administratzeko.

- Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, instrukzio-espedientea amaitu eta hurrengo hilabetean, funtsezkoak ez diren izapideak betetzeko hilabeteko aldi bereko epea bete ondoren.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena: 3. artikulua araber. 8/2012 Legearen 1.b) artikulua araber, haren txostena nahitaezkoa da, lege-aurreproiektua politika ekonomiko eta sozialarekin lotuta baitago.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko txostena: 6/2022 Legearen 23. artikuluan ezarritakoa betez, ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena eskatuko zaio Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25., 26. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

8.5. AMAIERA ETA ONARPENA

a) Azken espedientea eta prozeduraren memoria laburra: azken espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera osatuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikulua 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

b) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eta Eusko Legebiltzarrera bidali beharreko dokumentazioa: espedientea osorik izapidetu ondoren, eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 25. artikuluaekin bat etorriz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko da, eta dokumentazio bera bidaliko zaio Eusko Legebiltzarrari, Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak eskatutakoaren arabera.

Batzorde horren irizpenaren iradokizunen ondorioz aldaketak gertatzen badira, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari jakinaraziko zaizkio, ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.2 artikulua betez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen azken xedapenetako lehenengoaren idazketaren arabera.

c) Gobernu Kontseilura bidaltzea: lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, azter dezan. Gobernu Kontseiluak, bilkura berean, erabakiko du lege-aurreproiektua behin betiko onartu behar den eta, hala badagokio, Legebiltzarrera lege-proiektu gisa bidali behar den azken idazketa egiteko kontuan hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu, bai eta, hala badagokio, hura onartu arteko ondorengo izapidetzean egin behar diren jarduketak ere.

9. TESTU ARTIKULATUA ELE BITAN IDAZTEKO TEKNIKA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan eta Lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian xedatutakoa betez, ezartzen da dekretuaren euskarazko eta gaztelaniazko idazketa elebiduna egiteko sistema Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (IZO) ardurapeko itzulpena izango dela. Era berean, organo

izapidegilearen lankidetzaz aktiboa izango da. Organo horrek beharrezko argibideak emango ditu, itzulpenak arauaren eduki juridikoa eta teknikoa zintzo islatzen duela ziurtatzeko aukera ematen badute. Horrela, idazketa elebiduneko prozesua ahalik eta zorrotasun handienarekin egingo dela bermatzen da.

10.- ZABALKUNDEA ETA PUBLIZITATE AKTIBOA

Pertsonak administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideei buruz ezarritakoaren arabera, informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, horretarako gaitutako tresnaren bidez Legegunea.

Lege-aurreproiektu hau egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazioa Gardentasunaren gunean argitaratu behar da, ardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

11. IZAPIDEAK EUROPAR BATASUNEAN

Dekretu hau aldatzeko, ez da beharrezkoa izapideak egitea Europar Batasuneko erakundeen aurrean; izan ere, proposatutako araudiak ez du EBren zuzenbidetik eratorritako betebeharririk sartzen, eta ez die eragiten Europar Batasunaren esparruan aldeztatik jakinarazi, kontsultatu edo kontrolatu behar diren gaiak. Ondorioz, prozedura osorik garatu ahal izango da barne-eremuan, araudi autonomiko aplikagarriari aurreikusitako izapideei jarraituz.

Bigarrena.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuaren 6.1.a) artikulua arabera, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza izendatzea prozedura izapidetzeko organo arduradun Turismo eta Merkataritzako sailburuordearen gainbegiradapean, otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuaren 4.2.p artikulua arabera.

Hirugarrena. – Agindu honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakian xedatutakoaren arabera (erabaki horren bidez, arau-xedapen orokorrak egiteko oinarritzko izapidetze-eredua onartzen da).

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

Izp. Javier Hurtado Dominguez.
Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua

ERANSKINA

Euskadiko Turismo Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hasteko Aginduari erantsitako txostena

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.c artikulua ezartzen duenez, xedapen arauemaile baten proiektua hasteko aginduak, besteak beste, erantsitako txosten bat izan behar du, eta, bertan, proiektatutako arauaren edo haren eraginpeko xedapenen inpaktu- eta emaitza-ebaluazioak edo bestelakoak jaso behar dira, aurreko puntuaren arabera. Generoaren arabera eraginaren aurretiazko azterketak kontuan hartuta, proiektatutako arauak generoaren ikuspegitik duen garrantziari buruzko lehen balioespen arrazoitu bat sartuko da, eta, horretarako, berdintasunerako administrazio-unitateen aholkularitza izango da.

Dosier honek aipatutako arauak ezarritakoa betetzen du.

1.- Proiektatutako arauaren edo haren eraginpeko xedapenen eraginari, emaitzei edo bestelakoei buruzko ebaluazioak, ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioen aurreikuspenaren arabera, eta araua indarrean jartzearen ondorioz berariaz edo inplizituki xede berarekin aldatuko diren indarreko arauak.

Araudia egiteko prozeduran aurreikusitako inpaktuaren ebaluazioari dagokionez, adierazten da proiektatutako aldaketak Euskadiko turismo-gidariaren jarduerari buruzko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuan soilik eragiten duela, eta egokitzapen puntualak egiten direla haren aplikazio praktikoa hobetzeko eta jardun profesionalari lotutako bermeak indartzeko. Zehazki, aldaketaren helburua da zuzeneko gaikuntzaren araubidearen orde ebaluazio-proba bat eskatzea, izangaiak ezagutza, kompetentzia eta gaitasun profesionalen maila egokia egiaztatzen dutela bermatzeko. Neurri horren xedea da erabiltzaileen eskubideak bermatzea, turismo-zerbitzuaren kalitatea indartzea eta sektorea profesionalizatuago egon dadin laguntzea.

Arau-proposamenak ez du aldatzen indarrean dagoen eskumen-esparrua, eta ez du aldatzen inplikaturako administrazio publikoen arteko funtzio-banaketa, dekretuaren elementu zehatzak eguneratzera mugatzen baita, gainerako ordenamendu juridikoan ondorio substantiborik sortu gabe. Era berean, aldaketak ez die eragiten beste xedapen sektorial batzuei, eta ez du ondorio inpliziturik eragiten lotutako arauetan; izan ere, haren irismena hertsiki erregelamenduzkoa da, eta 26/2024 Dekretuak araututako eremu materialera mugatuta dago.

Era berean, ez da eragin ekonomiko, sozial edo ingurumen-eragin nabarmenik sortzen; izan ere, ebaluazio-proba sartzeak ez du ezartzen neurri kanpoko administrazio-kargarik, ez eta araututako lanbideen esparruan ohiko estandarrak gainditzen dituen betekizun gehigarrikerik ere. Aitzitik, uste da neurriak mesede egiten diola zerbitzuaren kalitateari eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesari.

2.- Proiektatutako arauak generoaren ikuspegitik duen garrantziari buruzko balioespen arrazoitua

Martxoaren 5eko 26/2024 Dekretuaren aldaketa proiektatuak irismen mugatua eta hertsiki teknikoa du, eta zuzeneko gaikuntzaren araubidearen orde EAEn turismo-gidariaren jardueran sartzeko ebaluazio-proba bat egitea eskatzen du. Genero-ikuspegitik, uste da

aldaketa horrek ez duela eragin negatiborik sortzen, eta ez duela ondorio bereizirik eragiten emakumeentzat eta gizonentzat; izan ere, sarbide-sistema berria modu uniformean eta objektiboan aplikatzen zaie hautagai guztiei. Azterketa bat sartzeak mesede egin diezaioke berdintasunari, zerbitzuaren gardentasuna, profesionalizazioa eta kalitatea indartzen dituen neurrian, zuzeneko gaikuntzako prozesuei lotutako joera informalak murriztuz eta sarbidea irizpide egiaztagarrietan oinarritzen dela bermatuz.

Era berean, turismo-gidariaren jarduerak parte-hartze orekatua du emakumeen eta gizonen artean, eta ez dago arrakalarik indarrean dagoen arau-esparrutik eratorritako sarbidean. Aldaketak ez ditu emakumeei neurritz kanpo eragin diezaieketen baldintzak sartzen, eta ez du emakumeen prestasunean edo kontziliazioan eragiten duen administrazio-karga gehigarririk sortzen. Era berean, ez du aldatzen generoaren arabera bereizitako ondorioak izan ditzakeen antolaketa-, lan- edo lan-baldintzen elementurik. Ondorioz, aldaketaren genero-eragina txikia dela uste da, nahiz eta neurriak zeharka lagundu dezakeen enpleguaren eta turismo-zerbitzuaren kalitatea hobetzen, eta alderdi horiek, oro har, sektoreko berdintasunari mesede egiten diote.

Gainera, proiektatutako aldaketak ez du aldatzen sektorearen egitura, eta ez du aldaketarik sartzen lanaren antolaketan, generoaren arabera bereizitako ondorioak izan baditzake. Turismo-gidarien jardueraren ezaugarria da emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea, eta zuzeneko gaikuntza ebaluazio-proba batez ordezteak ez ditu aldatzen lanbidean jarduteko baldintzak, ez eta jarduerari lotutako betekizun materialak edo lanekoak ere. Ildo horretan, neurriak ez du eraginik izango zereginen banaketan, enpleguaren egonkortasunean eta lan-merkatuan sartzeko mekanismoetan, eskumenen egiaztapen objektibotik harago; beraz, ez da aurreikusten sektorearen segregazio horizontalean edo bertikalean eragin dezakeen inpakturik.

Era berean, aldaketak zeharka laguntzen du turismo-zerbitzuaren kalitatea eta erabiltzaileen babesa indartzen, eta alderdi horiek genero-berdintasunarekin dute zerikusia; izan ere, lanbide-ingurune arautuagoa, gardenagoa eta kalitate-estandarretara bideratuagoa izateak pertsona guztien segurtasuna eta konfiantza errazten du, baita emakumeena ere, batzuetan kalteberatasun-egoerak jasan baititzakete turismo-testuinguru jakin batzuetan. Aldaketaren genero-eragina txikia bada ere, profesionalizazioa hobetzea eta baldintzak homogeneizatzea sektore seguruagoa, fidagarriagoa eta pertsona guztien eskubideak errespetatzen dituen lortzen laguntzen du.